


bidegileak



Agustin Anabitarte (1891-1981)

Egilea:

GOTZON EGIA



X. mendeko euskal letren esparruan, Agustin Anabitarte figura modernoa izan zen zalantzarik gabe: urbanoa sortzez eta bizitzaz, finantza erakunde bateko langilea, aisialdietan itsasoan nabigatzea maite zuena, oporretan munduan barrena txangoan eta argazkigintzan ibili zalea, euskaltzale suharra... eta idazle porrokatua.

Donostian jaio zen Agustin Anabitarte Irazu, 1891ko azaroaren 20an, goizeko bederatzietan. Jaiotza agiriak dioenez, aita Ramon arotza zuen, Altzakoa (Gipuzkoa); ama Josefa, berriz, Aginagakoa (Gipuzkoa). Aitaren aldetik, aitona donostiarra zuen, amona altzatarra; ama-

ren aldetik, berriz, aitona zizurkildarra, amona alegiatarra. Gipuzkoarrak guztiak, beraz.

Felix Agustin jarri zioten agirian izena, nahiz berak ez zuen Agustin besterik erabili bere bizitzan, bai idazle lanetan, bai dokumentu ofizialetan. Anaia bat izan zuen, Nestor izenekoa.

Ikasketak Donostian bertan egin zituen, ez oso luzeak aukeran, etxeko beharrak handiak baitziren. Oinarrizko maila eta merkata-



Agustin Anabitarte Irazu (1891-1981)

ritza ikasketak amaitu zituen orduko, lanean hasi zen, oso gazterik artean, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzian. Lanbide horretan eman zuen bizitza osoa, bertan hasi eta bertan hartu baitzuen erretiroa, lanbide maila guztietan, pixkana-pixkana, gora eginda, zuzendariorde izatera iritsia baitzen erretiroa hartu zuenean.



Agustín Anabitarte, lehen jaunartze egunean

Juanita Lasurtegiarekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten: Eustakio, Agustín eta Juanita.

Lanaz eta familiaz gain, bizitza osoa hiru zale-tasunen inguruan antolatu zuen Anabitartek: itsasoa, idazketa, bidaiak. Bizialdi luzea izan zuen, bere zaletasun guztiez ongi gozatzeko; Donostiako Galtzada Nagusiko etxean hil zen 1981eko ekainaren 4an, laurogeita hamar urte betetzera iritsi gabe.

Bere jaioterri Donostiari oso loturik egon zen beti Anabitarte, bai lurretik, bai itsasotik begiratuta ere. Aurrerago aipatuko dugun *Donostia* (1932) liburuan ongi baino hobeto azaldu zuen bere haurtzaroan ezagutu zuen hiria. Honela zioen Juan San Martinek, 1986an Anabitarteren lan osoak (*Agustín Anabitarteren idaz lanak*, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala) jaso zituen liburuaren atariko hitzetan:

Donostiako ohiturak ederki jasoak ditu [...] Hor jasotzen bai dira bertako ohitura jator asko, ber-bertako hizkuntzaz idatzirik. Kale izenez ere bada bertan zerrenda ezaugarri-rik. Beren buruak donostiar eta euskaltzale direla uste dutenentzat bada hor ikaskizun-ik anitz, batipat era jatorra ezagutu nahi dituztenentzat. Bestetan «jaiak» badira ja-torrek, Donostian «festak» izango dira gar-bizalerik borrokatuenarentzat ere. Festaz eta ospaketaz ere bada zer jaso Anabitarteren irakurgai hontan: Santomasak, lhauteri (or-dukoentzat «lote» edo «Asteleniote») bere Zapanzartekin, estropadak, zezen-suzko [...].



Aurrezki kutxako lankideekin, Donostiako Gipuzkoako plazan



Aurrezki kutxako lankideekin, Donostiako Artzain Onaren elizaren atzean

Jaioterriari bezala, familiari atxikimendu handia izan zion Anabitartek. Seme-alaben ikasketa garaietan eta gero lanbide bizitzan, zer esanik ez familia bilobez ugaritu zenean, Anabitartek biziki maite zituen familia osorik biltzeko aukerak, urteko ospakizunen ingurukoak eta abar. Guztien artean, San Agustin eguna (abuztuaren 28an) handikiro ospatu nahi izaten zuen. Urte luzetan, familia osorik elkartzen zuen Anabitartek Berastegin edo Auritzen (Nafarroa), bazkari baten inguruan. Argazkietan ikusten ahal

den bezala, joan-etorria errazago egiteko, autobus txiki bat alokatuta egiten zuten Berastegirainoko txangoa.

Itsasoa izan zen Anabitarteren bizitzaren beste ardatz nagusia. Esan daiteke itsasorik gabe nekez uler daitekeela Agustin Anabitarte: bere bizialdiaren puska eder bat itsasoan eman baitzuen, itsasontziren batean sartuta. Itsasoa, baina, ez zuen bakarrik bela-ontzi batean nabigatzeko maite; baita ere, igerilari trebea izan zen, eta zenbait artikulu idatzi zituen «igariketaz». Itsasoaren eta naturaren maitalea izaki, beste kiroletan ere saioak egiten zituen: ez zen harritzekoa izango Anabitarte asteburuetan mendian edo, sasoi iritsita, eski gainean ikustea.




Ezkontza egunean



Emaztearekin eta Eustakio seme zaharrenarekin



Seme-alabak: Eustakio, Juanita eta Agustin



Anabitarteren lan osoen bilduma 1986an argitaratu zen



Etxeko balkoian, 1957an. Lehen ageri dena biloba Elena da



Berastegira iristen



Berastegin, 1950eko hamarkadan



Eski gainean

Bidaia porrokatua ere izan zen, opor garaietan. Horretan ere esan daiteke Agustin Anabitarte soslai modernoko gizasemea izan zela. Argazkigintza izugarri maite zuen, eta beharbada zaletasun horrek bultzatuta, Europan, Afrikan, Ekialde Hurbilean eta Hego Ameriketako barrena txango luzeak egin zituen.

Marraskilari trebea izan zen Anabitarte, piano jole iaioa, kultura zabalekoa, familiaren eta adiskideen maitalea, bidaia eta argazkilari nekagaitza, idazle eta itzultzaile fina, euskaltzale suharra eta aldarre oneko gizon moderno eta urbanoa.

Idazlea

Gogoan izan behar da Anabitartek, bere belaunaldi osoak bezala, bete-betean pairatu zituena gerra zibila eta frankismoaren urte luzeak. Eten ikaragarria izan zen, noski, euskal kulturaren eta nortasunaren alde saiatu izan zirene guztientzat.


Agustin Anabitarte gerra baino askoz lehenagotik hasia zen idazten eta argitaratzen.

1918tik aurrera, artikulak argitaratzen hasi zen *Euskal-Esnalea* aldizkarian. Esan beharra dago Anabitarte *Euskal-Esnalearen* sustatzaileetako bat izan zela. Aldizkaria, lehenik, 1908an sortu zen Tolosan, Arturo Kanpion eta beste zenbaiten ekimenez, eta euskara hutsez argitaratua izan zen 1919 arte. Handik aurrera, eta 1931n argitaratzeari betiko utzi zion arte, euskaraz eta gazteleraz argitaratua izan zen, *Euskalerriaren Alde* izeneko elkartearen euskal hizkuntza eta literatura-ko agerkari gisa. Agustin Anabitartek zenbait alditan *Euskal-Esnalearen* barruan ardurak izan zituen (diruzain izan zen), eta haren ordezkari gisa hitz egin zuen maiz, batik bat Lekarozko kaputxinoen ikastetxean gaztetxoentzat udan antolatzen zen euskarazko ikastaldiaren amaieran (ikus, adibidez, «Gazteak eta euskera», *Euskal-Esnalea*, 317. zk., 1930).

Lehen artikulua haietan bi gai nagusi izan zituen: hizkuntzalaritza eta kirolak. Alde bate-



Anabitarte, lanetik erretiroa hartu berrian



Antziñako Olinpiar Jolasak liburuxkaren azala, 1925

tik, hizkuntza eta, bereziki, euskarazko hitzen etimologia asko ikertu zuen Anabitartek. «Espartziña, ¿endera ote da?» eta «Espartziña ¿Euskadi'n sortua al da?», 1918an *Euskal-Esnelean* argitaratuak biak dira horren lekuko. Julio Urkixoren paperen artean, ordea, etimologiaren gaineko bi ale argitaragabe gelditu dira, dirudienez Anabitartek *Revue internationale des études basques*-en argitaratzeko bidaliak Urkixori: bata, 1923ko urtarrilaren 4an gazteleraz idatzitako gutuna, Anabitarteren sinadura duena, aldizkarian argitara ote zitezkeen «orritxo batzuk» igortzekoa; bestea, 1924ko urtarrilekoa, gazteleraz idatzia baita ere, «Etimologías» izenekoa. Zazpi orri dira, idazmakina joak eta, pasarte batzuetan, eskuz gainetik zuzenduak, eta amaieran «Anabi» sinadura daramate. Aztertzen dituen gaiak aski bitxiak dira: -oiz- erroaren esanahia (noiz, goiz eta gisakoetan); -gi- erroaren adierak (haragi, gihar, gizen eta antzekoetan) eta... «bilutsik» hitzaren interpretazio etimologiko zehatza, zeinaren arabera *bil-* hori gizasemenen sexu organoa aipatzen baitu. Anabitarteren arabera, ezin esan, beraz, emakumerik «bilutsik» dagoenik.

Etimologia gaiez gain, bestalde, kirola izan zuen Anabitartek bere lehen idatzietako gaia. Esana dugu kirolzalea zela, besteak beste, igerilaria. Hain zuzen ere, igeriketaz hiru artikulu argitaratu zituen, 1919, 1920 eta 1921ean, *Euskal-Esnelean* aldizkarian. Kirolaren gainean izan zuen interesaren lekuko, ge-

roago, 1925ean, argitaratu zuen *Antziñako Olinpiar Jolasak* liburuxka dago. Hasieran, hitzaldi bat izateko sortu zuen testua, hain zuzen ere, *Euskal-Esna*leak urtero antolatzen zituen hitzaldi sailean eman zuen 1923ko azaroaren 28an; gero, gaia zertxobait gehiago landuta, liburu gisa kaleratu zuen.

Literatur lanen atalean, Anabitartek poemak argitaratu zituen lehenik. Julen Urkizak bere *Euskal bertso eta olerkien bibliografia* liburuan jasotzen du Anabitarteren poema argitaratuen zerrenda, ziurrenik bakarra. Zazpi poema dira, 1922tik 1927ra bitartean argitaratutakoak, *Euskadi*, *Gure herria* eta *Argia* aldizkarietan.

Bere lehen liburua, 1923koa, ez zen ordea literaturazkoa izan, lanbideari lotutako liburutxo zoragarri bat baizik: *Neska-mutileri dirua aurreratzen erakusteko*. Liburuaren atalaurrean dioenez, «“Caja de Ahorros Municipal de Bilbao”-k egindako ikastetxetar-aurrezkizaleatsunaren batzaldian saritutako lana (1922)». Jon Zabalo *Txikiren* marrazkiz hornitutako liburuxka da, 43 orrialdekoa, banketxeetako *libretaren* gisakoa. Ikuspegi didaktikoz egin dago orobat, dirua aurreztearen aldeko ipuin eta esamoldez osatua. Itxura guztien arabera, Anabitarte eta Txiki marrazkilaria adiskideak izan ziren, liburuak hornitzeko marrazkiak egiteaz gain, Txikik Anabitarteren karikatura argitaratu baitzuen *El Pueblo Vasco* egunkarian 1923an.



Txiki Zabalo marrazkilaria 1923an egindako Anabitarteren karikatura



Tolosako Polikarpo Elosegi txapelgileak 1932ko maiatzaren 12an Anabitarteri bidalitako esker gutuna, *Usauri* eleberraren ale bat bidali izanagatik



Urgulleko gazteluan, 1932an

Gerra aurreko urte haietan hezi zuen Anabitartek bere burua idazletzan. Egunkari-aldizkarietan argitara eman zituen poema, artikulua eta hitzaldi ugarien ondotik, ziurrenik bere burua aise ikusi zuenean hitz lauzko fikzioaren uretan murgiltzeko, bere lehen bi eleberriak argitaratu zituen, ia bata bestearen atzetik: *Usauri*, 1931n, eta *Donostia*, 1932an.

Euskaltzaindiak «Schuchardt saria» eratu zuen literatura bizkortzeko asmotan. Bi urtez izan zen eta bietan Agustin Anabitartek eraman zuen saria, 1929an *Usauri* eleberriarekin eta 1932an, *Donostiarekin*. Ezin hobeki hasi, egia esateko, eleberrigile bidea!

Usauri nobela mardula da, 150 bat orrialdekoa, idazlearen trebetasuna eta dohainak ederki

azaltzen dituen. Lehenik, 1930ean Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian argitaratu zen zatika, eta liburu gisa 1932an. Hona zer zioen Juan San Martinek 1986an Anabitarteren lan osoen hitzaurrean:

Usauri, eleberri eraz egindako irakurgaia da [...] Itsasgiroko liburua, donostiar era jatorrean idatzia, euskara errezean, esaldi aberats, hizkirimiri ugariz, ironiarik ez zaio falta. Atseginez irakurtzekoa da eta inoiz ez dut ulertu gure artean zergatik ez duen izan begirapen hobe eta ospe handiagoa. Guk euskarazko lanak arretaz hartu ez ditugulako ote? Estilo aldetik behintzat, oraingo donostiar gazteak nolabaiteko euskaraz ari direnek badute A. Anabitartegandik zer ikasirik. Eta bertako Ikastolak nekez aurkituko dute irakurgai hoberik.



Usauri eleberriaren azala, 1931



Donostia eleberriaren azala, 1932

Itsasoa eta Donostia, horra etengabeko bi osagai Anabitarteren bizitzan eta obran. *Usaurin* erraz antzematen da Donostia eta donostiarren hizkera zaharra. Hogeita bi kontakizun edo ipuin dira, elkarren arteko lotura erabatekorik gabeak, baina margolan baten gisan, koadroaren osotasuna eratzen dutenak.

Literatur kritikarien iritzira, lehen eleberr honetan ageri da, honezkero, Anabitarteren prosa «barojatarra», Pio Barojak gazteleraz idatzitako nobelen usaina, urrunekoa bada ere. Juan San Martin, berriro:

Bere idazkera jolaskorrean eta bizkortasunean, badu estiloz Pío Barojaren taxura, bere umorea hain mina izan gabe.

Bide horretatik atera gabe, edo, hobeki esanda, bide horretan aurrera eginda, dator Anabitarteren hurrengo eleberria, *Donostia*, esan bezala baita ere Euskaltzaindiaren «Schuchardt saria» irabazitakoa, 1932an. Egileak berak aitortu zuenez, «*Usauri*-ren anai lazta-na», baina oraingoan guztia eta erabat, izenburutik hasita, donostiar izpirituan murgildua. Txomin donostiar gaztea da liburuaren hogeita hiru atal edo kontakizunen protago-



Atenasen, 1933an

nista. Lehen orrian, Hernaniko espetxetik aterate gerra karlista amaitutakoan, eta Donostiara dator, zaldi gainean. Hortik aurrera, donostiar petoen istorioak kontatuko dizkigu Anabitartek, Txomin gaztearen bitartez: santomasetako feria, Plaza Berriaren inguruko gorabeherak, kaiko giro istilutsua, inauteriak («asteleniote»), Bretxa, estropadak, Santo Domingoko iturria... Hizkera ere, pasarte gehienetan apaingarririk gabeko herri hizkera soila eman nahi izan zuen Anabitartek. Hona hemen «Anton Zurrut eta Joxe Ogi» laugarren ataleko elkarriketa baten hasiera:

—I, ta zer moduz bizitu ziñaten moruen artian? —galdetu zion batek azken itzegin-dakoari.

—Ni oso ederki bisi niñuken nere nagusi-yarekin. Nere nagusiyak asko maite niñun. Nik arrek etzekiskiken aroste-gi-lanak egi-ten nizkioken. Ondo jan, oi ederra biskar-aren aspiyan, nai bejela bisi niñuken nere na-gusi mutur-beltzarekin. Jakintzak mutur beltza isanagatik guetako askok baño biyotz obia seukala.

Hor, bistan ageri dira Donostiako *mollan* egi-ten zen euskara zaharraren ezaugarriak, «bejela» (bezala) hori besteak beste.

Juan San Martinen iritziz, *Donostia* ez da eleberri hutsa; badu azterketa antropologiko baten aztarnarik:

Donostiako ohiturak ederki jasoak ditu.
[...] Hor jasotzen bai dira bertako ohitura

jator asko, ber-bertako hizkuntzaz idatzi-rik. Kale izenez ere bada bertan zerrenda ezaugarri-rik. Beren buruak donostiar eta euskaltzale direla uste dutenentzat bada hor ikaskizunik anitz, batipat era jatorra ezagutu nahi dituztenentzat.

Koldo Izagirrek eta Xabier Mendiguren Eli-zegik 1998an kaleratu zuten *Euskal literatura-ren antologia* liburuan, berriz, beste era bateko balorazioa egin zuten Anabitarteren lehen eleberrien gainean:

Bere apalean izan zuen garrantzia, fikziozko irakurgaiak hain urri ziren garaian.



Juanita alabaren ezkontza egunean

Etena

Franco jeneralaren matxinadak eta garaipenak isilune luze bat ezarriko dio Agustín Anabitarteren idazletzari. XX. mendeko lehen herenean euskal hizkuntzaren eta kulturaren aldeko lanetan mugimendu zabala antolatu zen, eta gune edo ardatz nagusietako bat Donostiaren inguruan izan zuen mugimendu horrek.

Gorabehera politiko handi samarrak bizi izan arren —besteak beste, Primo de Riveraren diktadura 1923tik 1925era—, mugimendu horrek ez zuen bizitasunik galdu, alderantziz baizik. Kultur erakundeak (Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren inguruan, batik bat) indar handia zuten, kasu askotan agintari lokalen, bereziki aldundien, babesean. Hizkuntzaren eta kulturaren ikerkuntza akademikoak, Julio Urkixoren etengabeko eki-



Itsasontzian, Asturiaseko Avilés herriaren aurrean, 1938an



Lagun artean, 1958an


menari esker eta *Revue internationale des études basques* aldizkariaren inguruan, garai loratuenetakoa ezagutu zuen. Kulturaren zabalakundea eta hizkuntzaren aldeko ekinbidea ongi baino hobeto uztartzen zituzten elkar-teen (*Euskal-Esnalea*, horren lekuko garbia) eragimen sozial handia zuten...

Giro ernalgarri hartan, jakina, zer ikusi handia izan zuen abertzaletasun politikoak. Esan ohi da naziotasun kontzientzia lehenik kulturaren eta hizkuntzaren oinarrietan errotzen dela, eta gero datorrela formulazio politikoak. Prozesu horren egia ukatu gabe, esan beharra dago baita ere XX. mendearen lehen herenean abertzaletasun politikoak naziotasun kontzientziaren ereile izan zela.

Agustín Anabitarteren kasuan, zaila izan daiteke esatea zerk eragin zuen gehiago, kontzientzia kulturalak hautu politikoetan, edo jarrera politikoak kultur ekinbideetan. Bi al-

deetako eragin-indarrak izango zituen, ziurrenik. Izan ere, militante nabarmena izan gabe, Anabitarte Eusko Alderdi Jeltzalearen inguru politikoan kokatzen zela esan badaiteke ere, argi utzi beharra dago horrek ez ziola mendekotasunik sortzen bere kultura eta hizkuntza jokabideetan. Oro har, esan daiteke Anabitarte gerra zibilaren aurretik euskal herri-hirietan sortu zen *abertzaletasun kultural militantearen* erakusgarria dela.

Frankismoak iltzez eta giltzez itxi zituen abertzaletasun kultural horren ezpainak, zer esanik ez abertzaletasun politikoarenak. Anabitartek ez zuen lerro bat bera argitaratu, guk dakigula, 1932an *Donostia* kaleratu zenetik, 1958an *Poli: mutil umezurtz baten ibillaldia* eleberriak argia ikusi zuen arte. Hogeita bost urte eta gehiagoko isilune luzea, horra frankismoaren emaitza itzela!



Poli eleberriaren azala, 1958

Zarauzko Itxaropena argitaletxearen *Kuliska* sorta gogoangarrian kaleratua, Donostiako kaian bizi den mutil umezurtza da *Poli*. Hona, berriro, Koldo Izagirrek eta Xabier Mendiguren Elizegik 1998an kaleratutako *Euskal literaturaren antologia* liburutik hartutako hitzak:

Gerra ostean beste eleberri bat idatzi zuen, *Poli*, aurrekoak baino ausartagoa eta libreagoa, Donostiako kaian bizi den haur umezurtz baten abenturak kontatzen dituen eta Barojaren estiloa gogorazten duena nolabait ere. Alabaina, hau atera zenerako (1958) haize berriak zebiltzan euskal literaturan, Txillardegiren lehen nobelekin batez ere.

Ostera ere, aurreko *Usauri* eta *Donostia* eleberrien kasuan bezala, Pio Barojaren airea hartzen zaio *Poli*... berri honi.

Beste ikuspegirik ere agertzen da, ordea, literatur kritikarien artean. Nabarmengarria, besteak beste, Seve Callejak *Haur literatura euskaraz: Lehengo irakurgaietatik 1986ra* arte liburuan (1994) Anabitarteren eleberria haur literaturaren historiaren testuinguruan azertu zuen:

Herritik irtendako ume koskorra, gazte helduta berriro ere herrira itzuliko da eta umetan ezagututako neskarekin ezkonduko, honelako nobeletan gertatu ohi denez. Egia esan, ez da erraz jakiten *Poli* ohiturazko nobela den, edo pikareska edo abentura nobela, hiruren ezaugarriren bat daukalako.



Galdarren, Kanariar Uharteetan,
1963ko otsailaren 2an

Egituraketagatik, hau da, zoritxarreko protagonista, gainditu beharreko gora-behera asko eta amaiera zoriontsua, Dickens nobelak dakarzkigu gogora.

Garaiaz kanpo samar, eta berandu behar bada, baina Anabitarteren saioa intrigazko eleberri bat idaztea izan zen, koadro kostunbristaren estalkiaren azpian, euskal prosan ordu arte oso bakanetan ikusitakoa.

Poli... eleberriaren kostunbrismoa aipatu dugu, baina hor ere gauzak xehetasun handiagoz aztertu behar dira, Izagirrek eta Mendiguren Elizegik egin zuten gisara:

Askotan gure aurreko literatura guztia berdindu eta zaku batean sartzeko joera daukagun arren, hor ere bilakaera bat dagoela ikustea komeni da. Esate baterako, interesgarria da nobela-hasiera hau [*Poli...*-rena] eta *Garoa*-rena konparatzea, Poli eta Joanes

aurrez aurre jarrita: biak dira eleberri tradizionalak, baina denboraren joanean pertsonaiek errealismoa irabazi dute eta idealismoa galdu, Joanes sendo-zindoaren aldean Poli alderrai, bakarti, bihurria baita. Bestalde, idazkera arin eta inpresionista darabil Anabitarrek, Orixeren antzera aditz laguntzailea isilduz, haren indarrik lortzen ez badu ere.

Uste dut gauzak era horretan begiratuta, hau da, dimentsio barojatarraz ez baizik dickens-tarraz, eta osagai kostunbristari bere alde modernoak erantsita, hobeki uler daitekeela frankismoaren urte beltz haietan Anabitarrek bere eleberrian eskaini nahi izan zuen saioaren funtsa. Halaxe ulertu zuen, ziur asko, Koldo Mitxelenak, *Poli...* argitaratu zenean egin zizkion agur hitzen arabera: «Euskal eleberrigileetan gehiena —xuberotarrek dioten bezala— dugun Anabitarre jauna agertu zaigu berriz ere plazara [...]».

Itzultzailea

Agustin Anabitarteri itzulpen argitaratu bakarria ezagutzen zaio: «Don Kijote'ren atal bat euskeratuta», *Revue internationale des études basques* aldizkarian argitaratua 1928an. Urte hartan, Iruñeko Udalak antolaturik lehiaketa izan zen, Cervantesen nobelaren IX. kapitulua («Donde se concluye y da fin a la estupenda batalla que el gallardo vizcaíno y el valiente manchego tuvieron») euskaraz emateko. Lehiakideak garai hartako euskal idazle handiak izan ziren: Oyeregui, Garbizu, Lizardi, Irigaray, Orixe eta Anabitarre bera. Nikolas Ormaetxea *Orixek* eraman zuen txapela, bere itzulpenari «Euskaldun bipilak eta Manchatar bizkorrak izan zuten burrukaldi lazgarriaren ondarra» izenburua jarrita.


Anabitarteren itzulpena («Euskaldun lerdanak eta Mantxa'ko seme bioztunak izandako arrigarritzko borroka bukatu ta azkena ematen zaionekoa») ongi taxutua da, itzulpen landua

da, garai hartako hizkuntza eredu garaian egina, lexikoan garbizale samarra —Orixe irabazlearen mailara iritsi gabe—, eta joskeran oso arina.

Beste saio ezezagunago bat egin zuen Anabitarrek: Lucius Apuleius-en *Metamorphoses* edo *Asinus Aureus* izeneko eleberri klasikoaren lehen bi atalak euskaratzea, «Urrezko astoa» izenburuaz. Gazteleratik egindako itzulpena da, aldamenean gaztelerazko testua baitu; makinaz joa dago eta gainean eskuzko zuzenketak ditu. Guk dakigularik, argitaratu gabea da, Anabitarteren oinordekoek gordetzen dituzten paperen artean aurkitu baitugu. Aurreko kasuan bezala, esan daiteke saio honetan ere itzulpena oso zaindua dela, eta Anabitarrek itzulpena ongi lantzeko denbora hartzen zuela, makinaz jotako testuaren gaineko zuzenketetan erakusten duen gisan.



Donostiako Nautika Klubeko txartela (1962)



ra zaharreko bidaia izan zen Anabitar-
te, ez garai modernoetako turista, bai-
zik munduko bazterrak patxadaz eta
denboraz korritzen zituen horietakoa.

Aprika-ko basamortuan liburua argita-
ratu zuenean 1961ean, honelaxe zioen
atariko hitzetan:

Nik lurralde guztietako gogoia izan
det beti, gauza berri asko ikusteko
egarria. Itsastarrenganako naia ere
bai. Izan ere, joriek ikusten dituzten
erri ta bazterrak! Orrengatik, aal
izan ez detan bitartean, nere biziera
estututa gelditu oi zait; baño aal izan
detanean, bai ikusi ikusgarriak. Guz-
tietan geien oroitu ditutanak aue-
txek dira: Italia, Grezia, Turkia, Israel,




Toledoko Alkazarren

Libano, Rodas Ugartea ta Ejipto-ren barrena
ibilli nintzanean; erri onetako txunturrak
(piramideak) ganbelu-gañean ikusi nitua-



«Ejito... erri onetako txunturrak ganbelu-gañean ikusi nituanean...»

nean; Cabo Norte-n gau-erdiko eguzkia zanean, bost egun segituan eguzkia sartu gabe ikusi genuanean; Spitzbergen-go mendi ta itsaso jelatuak eta, gehiago ez luzatzearren, Aprika-ko basamortua ikusi nituanean. Ikusgarria ezik, larrialdi geienak pasa ditutanez lekua Sahara izan da, ta otu zait oriek liburuan jartzea.



Manual del patrón de embarcaciones deportivas a vela
liburuaren azala, 1970

Liburu ederra *Aprika-ko basamortuan*, estilo zuzen eta inpresionistaz idatzia, dotore partate askotan, naturaren eta jendeen begirada zorrotz batez jasotako ikuspegi zehatza jasotzen duena. Argitaratu zen garaian, euskaltzale eta kritikarien artean goratsu hartu zuten Anabitarteren ekarpena, genero horretako irakurgaiak ezin urriagoak baitziren. Liburua argitaratu berritan, Koldo Mitxelenak *Egan* aldizkarian 1961ean bertan hala idatzi zuen, Anabitarteren obraren bakantasunaz:

Gogora datozkidanak ez dira liburuak edo, gutxienez (*Berebilez*, esaterako), Euskalerritik edo Euskalerraren aldamenetik ez dira aldentzen.

Mitxelenaren iritzia hori funtsean baieztatzera etorriko zen Joxemiel Bidador, desagertutako *Euskaldunon Egunkaria*-n 1998ko otsailaren 23an argitaratu zuen «Euskal idazle bidaiariak» artikuluan, Anabitarteren aurretik Martin Ducq hazpandarraren *Erroma eta Jerusalem* (1891), Txomin Agirreren *Juan etorri bat Erromara: biajari baten ziabeztxoak* (1892), Jon Izurrategi bilbotarraren *Jerusalem-go Osteran amari idazkijak* (1923), Pierre Duhour beskoitzarraren *Erromako itzulua* (1931) eta Jean Etchepare mirikuaren *Berebilez* (1931) besterik ez baitzituen zerrendatu, liburu nahiz artikulua, denak bat harturik.



Aprika-ko basamortuan bidai liburuaren azala, 1961

Itsaskaria

Itsasoa izan zen Anabitarteren bizitzaren osagai ezinbesteko bat, baita bere fikzioetan sortu zuen Donostiaren irudian ere. Eleberrietako, fikziozko Donostia hura itsasotik begiratuta ikusten zuen Anabitartek, kaiaren ikuspegia lehenik zela, hain ohituta egongo zen uretatik ikusten...

Aurrezki kutxako lanetik erretiroa hartu zuenean, lanaren eta, neurri batean, familiaren loturaz libreago sentitu zenean, ordu asko eman zituen Anabitartek nabigazioan.



Lagunekin, itsasontzian

Ez bakarrik ontzi gainean, baita nabigazioari buruz idazten ere. Hiru liburu eman zituen argitara 1970 eta 1972 bitartean, gatzeleraz hiruak, ziurrenik alferrik izango baitzen garai hartan aisialdiko nabigazioaz euskaraz argitaratzea. Eskuliburuak dira, belaontziak edo aisialdiko itsasontziak gidatzeko baimena eskuratu nahi zutenentzat eginak, azterketa ofizialen programaren arabekoak.



Anabitareren nabigazio tituluetako bat

Anabitarrek oso trebe izan behar zuten aisia-xedeko nabigazio kontuetan, bere esku izan baitzituen alor horretan izan daitezkeen baimen, titulazio eta ohorezko merezimendu aitorpen guztiak.



Lanetik erretiratuta, itsasoan asko ibili zen

Agustin Anabitarteren lan argitaratuak

- (1918) «Espartziña, zerdera ote da?». *Euskal-Esnalea*, Donostia. 172 zk., 91. or.
«Espartziña ¿Euskadi'n sortua al da?». *Euskal-Esnalea*, Donostia. 175 zk., 143-144 or.
- (1919) «Kirolak. Igariketa». *Euskal-Esnalea*, Donostia, 205 zk., 11-15 or.
- (1920) «Kirolak. Igariketa». *Euskal-Esnalea*, Donostia, 194, 196, 202 zk., 23-26, 67-71, 169-174 or.
- (1921) «Kirolak. Igariketa». *Euskal-Esnalea*, Donostia. 183-184, 187, 189, 191 zk., 63-65, 84-86, 152-155, 184-189, 242-245 or.
- (1922) «Igaro da gau-illa». *Euzkadi*, Bilbo. 3132 zk.
«Itsasoa non den». *Gure herria*, Baiona. 1 zk.
- (1923) *Neska-mutleri dirua aurreratzen erakusteko*. Eneko Deuna'ren Irarkola, Donostia
«Carta 1923 enero 4». Eskuizkribua
- (1924) «Etimologías». Eskuizkribua
«Gizon aundien txikieriak». *Argia*, Donostia, 148 zk. (sarean: <http://www.hemeroketa.com/>)
«Erokeria». *Argia*, Donostia, 152 zk. (sarean: <http://www.hemeroketa.com/>)
- (1925) Bide berri bat, bide zuzena?: zenbaki-gaiak *Euskal-Esnalea*, Donostia. 263 zk., 237-240 or.
Antziñako Olinpiar Jolasak. Martin eta Mena'ren Etxean, Donostia
«Agur, Axular!». *Argia*, Donostia. 228 zk. (sarean: <http://www.hemeroketa.com/>)
- (1926) *Itzaldiak: laugarren salla*. Martin eta Mena'ren Etxean, Donostia
«Urteberri». *Argia*, Donostia, 246 zk. (sarean: <http://www.hemeroketa.com/>)
«Urteberri». *Argia*, Donostia, 251 zk. (sarean: <http://www.hemeroketa.com/>)
«Ikus-begiak eta jakin-begiak». *Argia*, Donostia, 256 zk. (sarean: <http://www.hemeroketa.com/>)
- (1927) «Andregaiaren etxea». *Euzkadi*, Bilbo. 4449 zk.
«Elene'ren ezkon miña». *Euzkadi*, Bilbo. 4449 zk.
«Geizi-zalea». *Euzkadi*, Bilbo. 4449 zk.
«Letxa'ko txistularia». *Euzkadi*, Bilbo. 4449 zk.
«Hindenburg lerroa». *Argia*, Donostia, 347 zk. (sarean: <http://www.hemeroketa.com/>)

- (1928) «"Don Kijote"ren atal bat euskeratuta». *Revue internationale des études basques*, Paris. T. 19, 608-612 or.
- (1930) «Gazteak eta euskera». *Euskal-Esnalea*, Donostia. 317 zk., 105-107 or.
- (1931) «En torno al idioma vasco». *Euskal-Esnalea*, Donostia. 328-329 zk., 98-99 or.
Usauri. Editorial Vasca, Bilbo (sarean: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AnabitararteUsauri.htm>)
- (1932) *Donostia*. Editorial Vasca, Bilbo (sarean: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AnabitararteDonostia.htm>)
«Euskerari txistua jo». *Argia*, Donostia. 574 zk. (sarean: <http://www.hemeroketa.com/>)
- (1934) «Donibandarra». *El Día*, Donostia. 1934-02-04 (sarean: <http://www.hemeroketa.com/>)
- (1935) «1910-Dagonilla-6'ean». *El Día*, Donostia. 1935-07-14, 16, 19, 20 (sarean: <http://www.hemeroketa.com/>)
- (1936) «Iru eskizaleen erokeria». *El Día*, Donostia. 1936-03-04, 05 (sarean: <http://www.hemeroketa.com/>)
- (1958) *Poli: mutil umezurtz baten ibillaldiak*. Itxaropena, Zarautz
- (1961) *Aprika-ko basamortuan*. Itxaropena, Zarautz
- (1970) *Patrones y capitanes de yate: libro de navegación...* Itxaropena, Zarautz
Manual del patrón de embarcaciones deportivas. Editorial Donostiarra, Donostia
- (1972) *Manual del patrón de yate: vela y motor*. Editorial Donostiarra, Donostia
- (1986) *Augustin Anabitarteren idaz lanak*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia

Anabitarteri buruzko erreferentziak

Sarean: <http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00194.htm>

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Elena Anabitarteri
- Tomas Arrillagari

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2006ko urria
Ale-kopurua:	2.100
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2476-2 84-457-2479-7
L.G.:	BI - 2747-06

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística